



BAIKARArekin HARREMANETAN JARTZEKO:

- ▶ HELBIDEA: Basotxiki 36-atzealdea. 20015 DONOSTIA
- ▶ TELEFONOA: 943 32 72 08 / FAXA: 943 27 49 77
- ▶ E-MAILA: baikara@baikara.org
- ▶ WEB ORRIA: www.baikara.org

BAIKARA Gipuzkoako Ikastetxe Publikoetako Guraso Elkarten Federazioa da. Gaur egun, 140 IGE daude Federazioan izena emanda, elkarte guztien % 85, beraz. Hortaz, gure Federazioa Gipuzkoako guraso talderik handienaren ordezkari eta eldun dela esan liteke, eta halaxe dihardu irakaskuntza publikoari eragiten dioten hainbat alderdiri buruzko negoziatioetan eta eztabaida guneetan.

BAIKARAK BAZKIDE DITUEN IGEei ESKAINTZEN DIZKIEN ZERBITZUEN LABURPENA:

A) KUDEAKETAN ETA ERABAKIAK HARTZEN PARTE HARTZEKO AUKERA, bide hauetatik:

- Zuzendaritza Batzordeko kideak proposatuz.
- Zuzendaritza Batzordearen hileroko bileretan parte hartuz.
- Sei hilean behin egiten diren eskualdeko bileretan parte hartuz.
- Urtean behin egiten den Ohiko Batzar Orokorrean parte hartuz.

B) INFORMAZIOA, bide hauetatik:

- Aldian behingo Informazio Buletina: posta elektronikoz igortzen zaie IGEak berak aditzera ematen duen helbidera, edo ikastetxearen helbidera.
- hiru hilean behingo aldizkaria.
- Zuzendaritza Batzordearen bilerak, eskualdeko bilerak eta Batzar Orokorra.
- webgunea: www.baikara.org
- banakakoa: zuzenean Federazioari eskatuz (telefonoz, postaz edo e-mailez) edo teknikariren bat zentzora joan dadin eskatuz.

C) AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA

IGEen jarduerekin lotura duten gaietarako, eta baita Ikastetxeen kudeaketari dagozkion gaietarako ere:

- Pedagogikoa: Eskola Kontseiluaren eskumenak, eskola orduz kanpoko jarduerak...
- Juridikoa: IGEaren erantzukizunak, erreklamazioak, defentsa juridikoa ...
- Elkarteei buruzkoa: estatutuak, Elkarten Erregistroa, antolaketa...
- Ingurune sozialarekiko harremanak: Udalak, Hezkuntza Ordezkaritza....

D) FORMAZIOA

Gurasoei formazioa eskuratzeko aukera ematen zaie, bi alderditatik:

- 1.- gurasoen partaidetza organoetako kide gisa:
 - Eskola Kontseilua: eskumenak, legedia, estrategiak...
 - IGEen Zuzendaritza Batzordea: partaidetza, jarduerak, antolaketa...
- 2.- gure seme-alaben hezkuntzan laguntzeko baliabideak eta trebetasunak behar ditugun guraso gisa:
 - Lantegiak eta Guraso Eskolak
 - Hitzaldiak, jardunaldiak...

Era berean, kulturantzatasuna lantzeko proiektu bat ere badugu, ikasle nahiz gurasoentzat eratua.

E) ZERBITZUAK:

- *Aseguruak*: Baikarako bazkideei dagokien kuota ordainduz, IGEak aseguru bat lortzen du, bere jardueren erantzukizun zibila estaltzen duena. Era berean, ikasleentzako istripu aseguru bat ere eskaintzen dugu, baita boluntarioen aseguru deritzona ere, IGEek antolatutako jardueretan lankide moduan aritzen diren pertsonentzat (eskola kiroleko begiraleak, eskola orduz kanpoko jarduerak...)
- *Giza baliabideen kudeaketa*: IGEek jangeletan, haurtzaindegietan, eskola orduz kanpoko jardueretan eta abarretan jarduteko kontratatutako pertsonen lan kontratuak egitea.
- *Diru-laguntzen izapideak eta kudeaketa*: aholkularitza eta laguntza, Eusko Jaurlaritzari, Udalei... diru-laguntzak eskatzeko egin beharreko izapideak egiteko.
- *Liburu banaketa*: IGE batzuek egiten duten liburu salmentan laguntzea, argitaletxeen eta ikastetxeen arteko bitartekari lanak eginez.

F) EHIGE KONFEDERAZIOA: Jaia, Aldizkaria, Argitalpenak, Ordezkaritza...

BAIKARAK IGEei eskaintzen dizkien prestazioen eta zerbitzuen laburpen txiki bat besterik ez da hau. Informazio hau zabaldu nahi izanez gero, jo ezazue Federazioaren webgunera (www.baikara.org), edo eskatu Federazioari zuzenean.